BAZTANGO GOIZ ARGIA

Ederra da Baztan.
Ideal baten antzera.
Basa izaditik heldua,
Zentzumenaren harrapakaria.
Zentzua asebete,
Zentzua gainditu,
Zentzua akuilatu,
Zentzua jasotzen didana.

Hostotza oskorri,
Urre zaharreko sareta,
Tarte berde eta urdinak.
Arroka gandor,
Harkaitz grisaxka,
Bailararen ortzimuga,
Bertan ez den mundu batera
Zabalik dugun atea.

Udazken koadro,
Pintzel inpresio,
Kolore nahaste nabarra,
Gorri, arre, lurkara.
Kobre eta eztiz
Tindatutako
Brokatu argiz betea.

LUMINOSA MAÑANA EN BAZTÁN

El Baztán es hermoso,
Como un ideal.
Ideal de vida salvaje,
Que atrapa el sentido,
Que lo satura,
Que lo supera,
Que lo incita,
Que lo eleva.

Frondas arreboladas,
De oro viejo celosías,
Calados de verde y azul.
Crestas de roca,
Riscos de gris,
Horizontes del valle,
Pasos a un mundo
Que aún no está allí.

Cuadro de otoño,
Impresiones de pincel,
Amalgama de colores,
Rojos, pardos y terrosos.
Brocados iluminados
Tintados
de cobre y miel.

